

HERRITARREN ETA GIZARTEAREN PARTAIDETZARAKO 2024-2027 FORU PLANA



Erraz irakurtzeko bertsioa

Koordinazioa: Bizkaiko Foru Aldundia. Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.

Irakurketa Errazera egokitzapena: María Peralta (Lectura Fácil Euskadi)

Diseinua eta ilustrazioak: Mercedes Corretge



Logotipo honek identifikatzen ditu IFLAk (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europe-k irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzendutako materialentzat ezarritako nazioarteko gidalerroak jarraitzen dituzten materialak. Agiri hau Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza-k berrikusi du, eta berak abalaten du.

© Bizkaiko Foru Aldundia
www.bizkaia.eus

© Ilustrazioenak: M.Corretge

Lege-gordailua: BI-00279-2025

Aurkibidea

Sarrera 4

- Zer da herritarren partaidetza?
- Zergatik da garrantzitsua?

Bizkaiko Foru Aldundiko partaidetza eredia 6


- Printzipioak
- Zer egin dugu orain arte?
- Partaidetza bultzatzen duten ekintzak

Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako Foru Plana sortzea 9

- Nola sortu dugu?
- Nork parte hartu du prozesuan?
- Eztabaida-foroa

Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako Foru Plana garatzea 14

- Helburuak
- Jarduera-ildoak
- Jarraipena




Bizkaiko Foru Aldundiarentzat oinarritzkoa da herritarrek parte har dezatela Bizkaia hobetuz eraikitzen laguntzen duten proiektu eta programen sorkuntzan.

Hori dela eta, garrantzitsua da herritarrek hitz egin, elkarlanean aritu eta hainbat ekintzetan parte har dezaten jarduerak eta tokiak izatea.



Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako 2024-2027ko Plan honek beste urrats bat eman nahi du Bizkaiko Foru Aldundiak herritarren partaidetzarekin duen konpromisoan.

Horregatik, Plan honek Bizkaian herritarren partaidetza gehiago eta hobea sustatzen duten 17 jarduera biltzen ditu.



Bizkaiko kolektibo eta udalerrri guztietara iritsiko den eta pertsona guztien lankidetzarekin eta konpromisoarekin zerbitzu publikoak hobetzen lagunduko duen partaidetza.

Zer da herritarren partaidetza?

Tresna oso erabilgarria da eta gobernuari aukera ematen die herritarrek entzuteko eta gizartearen hainbat sektoretako pertsonen eta erakundearen proposamenak ezagutzeko.

Zergatik da garrantzitsua herritarren partaidetza?

Herritarren partaidetzak onura asko ditu. Hona hemen onura garrantzitsuenetako 5:

- **Demokraziaren kalitatea hobetzen du,** herritarrek dituzten lehentasunak eta beharrak Administrazio Publikoari helaraztea eta gainerako gizartearekin harreman handiagoa izatea sustatzen duelako.



- **Arau, plan, programa eta zerbitzu publiko hobeak sortzeko aukera ematen du,**
herritarren ezagutzekin eta esperientziekin eraikitzen direlako.
- **Gobernuak herritarrekin harreman gehiago izateko aukera ematen du,**
eta herritarren beharretan oinarritutako politika publikoak sortzen ditu.
- **Elkarrizketaren bidez akordioak lortzea eta konpromisoa eta lankidetzaz bultzatzen ditu**
herritarren eta Administrazio Publikoaren artean.
- **Gizarte konprometituagoa eta arduratsuagoa sortzen du,**
herritarren intereseko gaiak jorratzeko eta arazoei irtenbideak aurkitzeko.





■ Printzipioak

Bizkaiko Foru Aldundiak denbora asko darama herritarren partaidetza lortzeko lanean.

Esperientzia horri esker, herritarren partaidetzarako eredu propioa sortu dugu eta 6 printzipiotan oinarritzen da:

1. Politika publikoak sortzeko eta gauzatzeko ezinbesteko tresna da.
2. **Agenda publikoan** komunitatean bizi diren pertsonen banakako eta taldeko interesak kontuan har daitezten laguntzen du.
3. Baliabideak errazten ditu herritarrek partaidetza tokietara, kanaletara eta prozesuetara sarbidea izan dezaten. Horrela, iritzi gehiago ezagutzea eta proposamen gehiago gauzatzea lortzen da.
4. Lantzen diren gaiei buruzko ideia fidagarriagoa eta zehatzagoa ematen du, sektore bakoitzeko interesdunen iritzia duelako.
5. Beste partaidetza-ekimen batzuekin osa daiteke, eztabaida sozial gehiago eta iritzi eta proposamen anitzagoak sortzeko.
6. Bizkaiko Foru Aldundia da hartzen dituen neurrien eta proiektuak eta jarduerak gauzatzeko moduaren arduraduna. Horregatik, baliteke batzuetan herritarren proposamenak ez onartzea. Baina onartzen ez dituenen, arrazoiak azaldu behar ditu beti.

Agenda publikoa:

gizartea kezkatzen duten eta agintariak landu eta eztabaidatu behar dituzten gaien multzoa.

■ Zer egin dugu orain arte?

Partaidetzarako I. Plana (2018-2019)

Jarduera nabarmenenak:

- Herritarrek parte hartzeko eredu, toki eta jarduera berriak sortzea.
- Planaren eta herritarren partaidetza sustatzea helburu zuten beste ekintza-plan batzuen arteko lotura.

Partaidetzarako II. Plana (2020-2023)

Jarduera nabarmenenak:

- Eztabaida-foroak garatzea, parte hartzeko modu berri gisa. Eztabaida-foroetan, pertsona talde bat biltzen da interes publikoko gai bati buruz hausnartzeko eta gomendioak egiteko.

Herritarren eta Administrazio Publikoaren arteko lankidetzak dakarte politika eta zerbitzu publikoak hobetzeko.

- **Partaidetzarako atari** berri bat sortzea.
- Herritarren eta gizartearen partaidetza proiektuetarako dirulaguntzen programa berri bat abian jartzea.
- Herri Ekimen Arauemailea arautzen duen **Bizkaiko Batzar Nagusiek** onartutako Foru Araua sortzea eta onartzea. Hau da, Foru Arau hau Bizkaiko herritarren partaidetza errazteko sortu da.

Partaidetzarako ataria:

Partaidetzari buruzko informazioa ematen duen Interneteko toki. Bertan zure iritzia eman eta beste pertsona batzuekin parteka dezakezu axola zaizkizun eta kezkatzen zaituzten komunitateko gaiei buruz.

Bizkaiko Batzar Nagusiak:

Bizkaiko herritar guztiak ordezkatzeko dituen organoa eta erakunde gorena da. Bizkaiko Legebiltzarra bezalakoa izango litzateke.

■ Partaidetza bultzatzen duten ekintzak

Orain arte egin ditugun partaidetzako planen eta jardueren bidez, egin ditugun ekintzetako batzuek partaidetza gehiago bultzatzen dutela ikusi dugu.

Hauek dira partaidetza bultzatzen duten ekintza horiek:

- Herritarrei zuzenean parte har dezaketen jarduerak eskaintzea.
Adibidez: eztabaida-foro irekiak, iritzi-inkestak eta iritzia emateko eta proposatzeko formularioak.
- Hainbat kanalen bidez zabaltzen diren partaidetza-prozesuak sortzea, pertsona gehiagorengana iritsi ahal izateko.
- Partaidetza-prozesuak sortzea zerbitzu publikoen hobekuntzarekin lotuta eta zerbitzu horiek erabiltzen dituzten pertsonen iritzia eta proposamenak kontuan hartuta.
- Eztabaida-foroetan partaidetza sustatzea. Foro horietan parte hartzen duten pertsonak gai bati buruzko beharrezko informazioa jasotzen dute profesionalen eta adituen aldetik.

Ondoren, hausnartzeko eta zer iritzi duten edo zer proposamen egingo dituzten erabakitzeko denbora dute. Eztabaida-prozesu bateko parte-hartzaileek egiten dituzten gomendioak kontuan hartzen dira pertsona horietako gehienen artean akordio bat dagoenean.

- Agerian jartzea partaidetzak helburu bera lortzeko pertsonen arteko lankidetzak esan nahi duela.
- Hizkera argia eta irakurketa erraza erabiltzea herritarren partaidetza-prozesuetan.

Argiagoa eta irisgarriagoa den komunikazio mota hori erabili behar da partaidetza dinamiketan eta jarduera horiekin zerikusia duten dokumentazioan eta memorietan.



Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako

Foru Plana sortzea



■ Nola sortu dugu?

Plan hau prozesu honen bidez sortu da:

1. Bizkaiak herritarren partaidetzarekin lotuta bizi duen egoeraren azterketa eta lortu nahi ditugun helburuak proposatzea.
2. Beste erakunde batzuek partaidetzari dagokionez lortu dituzten lorpenak eta jardunbide egokiak ezagutzea.
3. 2020-2023 Planaren ebaluazioaren bidez lortu ditugun ondorioen balorazioa, Plan berri honen gauzatzean kontuan hartzeko.
4. Plan berriari gauzatuko ditugun jarduerak proposatzea, proposatutako helburuak betetzeko.

■ Nork parte hartu du prozesuan?

Plan hau egiteko prozesuan, ia 1.600 pertsonaren eta erakunderen iritziak eta proposamenak jaso dira.

Hainbat kolektibotako parte-hartzaileen kopuru hain altuak aukera eman du herritarren beharrak eta itxaropenak zein diren ondo ezagutzea.

Parte hartu duten pertsonen, erakundeen eta organismoen ondorio nagusiak hauek dira:

Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioak

Prozesu honetan iritzia eman duten
BFAko funtzionarioek iritzi hau dute:

- Pertsonen % 92k uste du partaidetza oso garrantzitsua dela politika publikoak hobetzeko eta pertsonak gehiago inplika daitezen.
- Pertsonen % 67k uste du Aldundiaren partaidetza-prozesuek ahalbidetu dutela politika eta zerbitzu publiko gehiago sortzea edo berriro martxan jartzea.
- Gutxi ezagutzen dira Bizkaiko Foru Aldundiak sortutako partaidetza tresnak zein diren.
- Aldundiko langileek prestakuntza handiagoa behar dute partaidetzari buruz.

Foru-zuzendaritzak

Prozesu honetan iritzia eman duten
Foru-sail guztietako Zuzendaritza Nagusiko karguak
aldi baterako betetzen dituzten pertsonak
iritzi hau dute:

- Dauden organoak beharrezkoak dira herritarrekin eta erakundeekin harremanetan egoteko eta zerbitzu eta programa berriak sortzeko.
- Pertsonen % 69k uste du Foru-sailen osaera egokia dela.
- Pertsonen % 75ek uste du Foru-sailek ondo funtzionatzen dutela.
- Pertsonen % 70 inguruk uste du gauzatu diren partaidetza-prozesuek ideia erabilgarri berriak sortzeko eta jarduera ezagutarazteko balio dutela.

Bizkaiko Foru Aldundiko partaidetza-organoetan parte hartzen duten eragileak

Partaidetza-organoetan parte hartzen duten eta prozesu horretan iritzia eman duten enpresa eta erakundeek hau uste dute:

- Enpresen eta erakundeen % 52k uste du partaidetza-organoen erabilgarritasun handiena aliantzak egitea eta beste erakunde eta instituzio batzuekin akordioak lortzea dela.
- Enpresen eta erakundeen % 63k onuragarritzat jotzen dute partaidetza-organoetan iritziak emateko eta ideiak proposatzeko dagoen askatasuna.

Bizkaiko toki-erakundeak

Prozesu honetan iritzia eman duten Bizkaiko toki-erakundeek iritzi hau dute:

- Pertsona eta kolektibo guztiak partaidetza-prozesuetan sartuta daudela ziurtatu behar da.
- Pertsonek parte hartu ahal izateko behar diren bitarteko eta kanal guztiak erabili behar dira, baita aurrez aurre parte hartzeko aukera ere.



Herritarrak

Prozesu honetan iritzia eman duten herritarrek iritzi hau dute:

- Pertsonen % 91k uste du partaidetza oso garrantzitsua dela politika publikoak hobetzeko eta pertsonak gehiago inplika daitezen.
- Herritarrek hoberen baloratu duten alderdia, % 52k, partaidetza-prozesuetan hizkera argia eta ulergarria erabiltzen dela da.
- Herritarrek okerren baloratu duten alderdia, %30ek, partaidetza-prozesuetan herritarren iritziak eta proposamenak nola sartu diren da.
- Pertsonen % 43k uste du parte hartu duten partaidetza-prozesuek **eragin** positiboa izan dutela.

Eztabaida-foroa

Lan-prozesu honetan garrantzi berezia izan du 2023ko urtarrilaren 28an Euskalduna Jauregian egin zen Eztabaida-foroak.

Bizkaitarren Sarean edo **newsletterrean** izena emanda dauden 33 boluntariok parte hartu zuten.

Eztabaida-foroan landu zen gaia Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza nola bultzatu izan zen. Gai hori jorrazteko, parte-hartzaileek 4 gairi erantzun zioten.

Eragin:

Aldaketak eragiten dituzten eta pertsoneri modu positiboan edo negatiboan eragin diezaieketen ekintzak.

Newsletterra:

Posta elektronikoz bidaltzen den argitalpen digitala da. Bidaltzen duen erakundearen albisteei eta berrikuntzei buruzko informazioa du.

Gai bakoitzeko galdera nagusia hau izan zen:

1. gaia

Parte hartzeko zer bitarteko eta kanal erabili beharko lirateke kolektibo guztietako pertsona gehiagok parte hartu ahal izateko?

2. gaia

Zein informazio eta zabaltze-kanal erabili beharko lirateke pertsona gehiagok parte hartzeko aukerei buruzko informazioa jaso dezaten?

3. gaia

Zer informazio-mota eman beharko litzateke partaidetza-prozesuari buruz prozesu horretan parte hartzea interesgarriagoa izan dadin?

4. gaia

Zer egin beharko litzateke herritarrek partaidetza-prozesuak ondo kudeatzen direla eta emaitza egokiak lortzen ari direla konfiantza izan dezaten?

Eztabaida-forotik 23 proposamen atera ziren, Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako herritarren partaidetzak herritarren beharrei eta itxaropenei hobeto erantzun diezaion.

Aldundiak 23 proposamenak aztertu ditu eta horietatik 22 onartu ditu. Proposamen horiek osorik edo partzialki gauzatuko dira Planean zehar.

Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako Foru Plana garatzea



■ Helburuak

Bizkaiko Foru Aldundiak 5 helburu nagusi ditu plan honetarako:

1. Dagoeneko daukagun Partaidetza Ereduan sakontzen jarraitzea.
Akordioak lortzeko pertsona guztiei entzuten dien eredia da eta aldi berean, Aldundiak erakunde gisa duen erantzukizunari eusten dio.
2. Herritarrei parte hartzeko aukera gehiago eskaintzea eta kolektibo guztiek parte har dezaketela ziurtatzea.
3. Lanean jarraitzea Bizkaiko gizarteak partaidetzan, lankidetzan eta konpromisoan gehiago sinistu dezan.
4. Bizkaiko toki-erakundeen herritarren partaidetzarako jarduerari laguntzea.
Batez ere, tamaina eta baliabide gutxien dituzten erakundeenei.
5. Aldunditik sustatzen den partaidetzak herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu publikoek kalitatea hobea izateko balio dezatela lortzea.



■ **Jarduera-ildoak**

Proposatu ditugun helburuak
4 jarduera-ildoren bidez gauzatuko ditugu.

Jarduera-ildo bakoitzak helburu desberdinak eta helburu hori betetzea ahalbidetuko duten jarduerak ditu.

1. jarduera-ildoak:

Parte hartzeko aukerak eta erraztasunak

- **HELBURUAK**

- Herritarrei, erakundeei eta instituzioei parte hartzeko aukera gehiago eskaintzea.
- Parte-hartze prozesu horiek errazago ulertzea eta horietan parte hartzea errazagoa izatea.

- **JARDUERAK:**

1. "Partaidetza Bizkaia" marka gauzatzea

Zer lortu nahi dugu?

Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen dituen partaidetza-jarduerak ezagutzen eta aurkitzen lagunduko duen marka propioa sortzea.

Zergatik egiten dugu?

Garrantzitsua delako herritarrei Aldundiaren jarduerak identifikatzen lagunduko dien partaidetza-marka bat izatea.

Zer egingo dugu?

- **"Partaidetza Bizkaia"** marka sortzea.
- Marka hau erabiltzea Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako partaidetza-jardueretan.

Nork parte hartzen du?

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak.
- Komunikaziorako Zuzendaritzak.

Nola ebaluatuko dugu?

- “Partaidetza Bizkaia” marka gauzatzea edo ez.

Noiz?

2024-2027 aldian zehar.

2. Aldundiko partaidetzarako ataria hobetzea

Zer lortu nahi dugu?

Partaidetzarako ataria sortzea, herritarrentzat orain dagoena baino errazagoa eta irisgarriagoa.

Zergatik egiten dugu?

Herritarrek erraztasun gehiago izan dezaten Aldundiak eskaintzen dituen parte-hartze jardueraz informatzeko eta horietan parte hartzeko aukera gehiago izan ditzaten.

Zer egingo dugu?

- Konponbideak definitzea eta abian jartzea, Partaidetzarako Atarian sartzea eta erabiltzea errazago izan dadin.

Nork parte hartzen du?

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak.
- Komunikaziorako Zuzendaritzak.
- Lantikek.

Nola ebaluatuko dugu?

- Partaidetzarako Atarira sartzea eta erabiltzea errazagoa den edo ez.
- Partaidetzarako atarira sartu den pertsona kopurua.

Noiz?

2024-2027 aldian zehar.

3. Foru-estrategiak, -planak eta -arauak sortzeko partaidetza sustatzea

Zer lortu nahi dugu?

Herritarrei aukera gehiago ematea iritzia eman dezaten eta proposamenak egin ditzaten foru-estrategiak, -planak eta -arauak sortzeko prozesuetan.

Zergatik egiten dugu?

Foru-estrategiak eta -planak tresna oso garrantzitsuak direlako herritarren eskaerei eta beharrei erantzungo dieten politikak eta programak sortzeko.

Zer egingo dugu?

- Partaidetza-prozesuak sortzea eta foru-estrategiak, planak eta arauak lantzeko prozesuetan sartzea.
- Partaidetza-prozesuak dinamizatzea.
- Prozesuak ebaluatzea eta prozesuak gauzatzea kostatu den aurrekontua adieraztea.

Nork parte hartzen du?

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak.
- Foru-sail guztiek.

Nola ebaluatuko dugu?

- Nahitaezko partaidetza-prozesu administratiboetatik haratago partaidetza-prozesuak dituzten foru-estrategia eta -planen ehunekoa (%).

Noiz?

2024-2027 aldian zehar.

4. Foru-zerbitzuak hobetzeko partaidetza sustatzea

Zer lortu nahi dugu?

Aldundiaren zerbitzuen erabiltzaileak sartzea zerbitzu horiek sortzeko eta hobetzeko prozesuetan.

Zergatik egiten dugu?

Zerbitzuek herritarren beharrei hobeto erantzun diezaieten eta errazago erabili ditzaten.

Zer egingo dugu?

Berrikuntza-laboretegiak sortzea, hala nola Govtech Lab Bizkaia, foru-zerbitzuen erabiltzaileek zerbitzu horiek sortzen eta hobetzen parte har dezaten.

Nork parte hartzen du?

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak.
- Foru-sail guztiek.

Nola ebaluatuko dugu?

- Foru-zerbitzuak sortzearekin eta hobetzearekin lotuta dauden eta herritarrek parte hartu duten prozesuen kopurua.

Noiz?

2024-2027 aldian zehar.

5. Eztabaida-partaidetzan sakontzen jarraitzea

Zer lortu nahi dugu?

Eztabaida-partaidetzako prozesu gehiago sortzea 2024-2027 Partaidetza Plan honetan.

Zergatik egiten dugu?

Herritarrek eztabaida-foroetan parte hartzeak emaitza oso onak eman dituelako 2020-2023ko Partaidetzarako II. Planean.

Zer egingo dugu?

- Herritarren partaidetza-prozesuak zein eremutan sortu behar diren aztertzea.
- Eztabaida-foro berriak sortzea.
- Partaidetza-prozesu horietan lortzen diren proposamenak eta emaitzak aztertzea.

Nork parte hartzen du?

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak.
- Foru-sail guztiek.

Nola ebaluatuko dugu?

- Zenbat partaidetza-prozesu gauzatu diren.
- Parte hartu duten pertsonen kopurua.
- Jasotako gomendioen kopurua.
- Osorik edo partzialki onartzen diren gomendioen ehunekoa (%).
- Urtebetean betetzen diren onartutako konpromisoen %a.

Noiz?

2024-2027 aldian zehar.

Zer lortu nahi dugu?

Bizkaian partaidetzarekin konpromisoa duten pertsona gehiago egotea.

Zergatik egiten dugu?

Garrantzitsua delako komunikazio-kanalak sortzen jarraitzea, partaidetza-prozesuak herritarrengana hurbiltzeko.

Zer egingo dugu?

- “Bizkaitarren Sarean” pertsona eta erakunde gehiago sartzea.
- Parte-hartzeari eta **Gobernu Irekiari** buruzko newsletter forala sortzea herritar guztientzat.

Gobernu irekia:

Gobernatzeko modua, herritarrei parte hartzeko eta interes publikoko gaiei buruzko proposamenak egiteko aukera ematen diena.

Nork parte hartzen du?

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak.
- Zugaztelek.

Nola ebaluatuko dugu?

- “Bizkaitarren Sarean” parte hartu duten pertsonen kopurua.

Noiz?

2024-2027 aldian zehar.

7. Haurren eta nerabeen partaidetza sustatzea

Zer lortu nahi dugu?

Haurrek eta nerabeek eragiten dieten gaiei buruzko iritziak eman ditzaketela eta iritzi horiek kontuan hartzen direla ziurtatzea.

Zergatik egiten dugu?

Haurren eta nerabeen partaidetza eskubidea delako. Herritar konprometituagoak, toleranteagoak eta demokratikoagoak lortzeko.

Zer egingo dugu?

- Bizkaian hurrek eta nerabeek parte har dezaten berariazko proiektu bat sortzea.
- Proiektu hau gauzatzea hurrekin eta nerabeekin lan egiten duten toki-erakundeekin eta gizarte-eragileekin lankidetzan.
- Bizkaia hurrekin eta nerabeekin konpromisoa duen lurralde gisa ezartzea.

Nork parte hartzen du?

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak.
- Bizkaiko toki-erakundeek.
- Hurrekin eta nerabeekin lotutako gizarte-eragileek.

Nola ebaluatuko dugu

- Hurrek eta nerabeek parte har dezaten Bizkaian dauden tokien kopurua.

Noiz?

2024-2027 aldian zehar.



2. jarduera-ildoak:

Partaidetza-prozesuak kudeatzeko Aldundiaren gaitasuna

- HELBURUA:

- Beharrezko baliabideak sortzea,
Bizkaiko Foru Aldundiko sail guztiak bere esparruan
partaidetza bultzatzeko gai izan daitezen.

- JARDUERAK:

1. Aldundian partaidetzarekin lotutako barne-antolamendua hobetzea

Zer lortu nahi dugu?

Barne-sistema bat izatea, Foru Sailen barruan
partaidetza antolatzen eta sustatzen laguntzeko.

Zergatik egiten dugu?

Beharrezkoa delako sailek sortzen dituzten
partaidetza-prozesuek ezaugarri berak izatea
eta jarraibide berak betetzea.

Zer egingo dugu?

- Ildoak, gomendioak eta prozedurak sortzea
Bizkaiko Foru Aldundiko sailen barruan
herritarren partaidetza bultzatzeko.
- Ildoak, gomendioak eta prozedurak sortzea
partaidetzarekin lotutako jarduerak kudeatzeko
sistema bati jarrai diezaioten.

Nork parte hartzen du?

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren
eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak.

Nola ebaluatuko dugu?

- Jarraibideak, gomendioak eta barne-prozedurak
sortzea edo ez.

Noiz?

2024-2027 aldian zehar.

2. Foru-langileen partaidetzan prestakuntza gehiago eskaintzea

Zer lortu nahi dugu?

Herritarren partaidetza-jarduerak sortu, dinamizatu eta ebaluatzeko beharrezko prestakuntza duten pertsonak eta taldeak izatea Aldundiaren barruan.

Zergatik egiten dugu?

Aldundiko langileen inplikazioa eta prestakuntza oinarritzkoa delako partaidetza-prozesuek ondo funtziona dezaten eta espero diren emaitzak eman ditzaten.

Zer egingo dugu?

- Aldundiko langileentzako partaidetzari eta gobernu irekiari buruzko berariazko prestakuntza sortzea, informazio eta sentsibilizazio jarduerekin.
- Jardunbide egokiei eta partaidetza metodologiei buruzko tailerrak eta topaketak antolatzea Aldundiko sailetan.

Nork parte hartzen du?

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak.
- Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak.
- Foru-sail guztiek.

Nola ebaluatuko dugu?

- Partaidetza-arloan prestatutako pertsonen kopurua.

Noiz?

2024-2027 aldian zehar.

3. Aldundiak sustatzen dituen partaidetza-prozesu guztietan jarraibide berak sortzea

Zer lortu nahi dugu?

Funtzionamendu jarraibide orokorrak sortu partaidetza organoek eta tokiek parteka ditzaten.

Zergatik egiten dugu?

Sailek sortzen dituzten partaidetza-prozesuek ezaugarri berak izatea eta jarraibide berak jarraitzea beharrezkoa delako.

Zer egingo dugu?

- Parte hartzeko organo eta espazioetan parte-hartzearen eta funtzionamenduaren adierazle komunak garatzea.
- Metodologia bat sortzea, partaidetza-prozesuetan inbertitutako aurrekontua ebaluatzeko.
- Partaidetza organoak, tokiak eta prozesuak etengabe ebaluatzea.

Nork parte hartzen du?

- Gobernamentu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak.
- Foru-sail guztiek.

Nola ebaluatuko dugu?

- Barneko funtzionamendu eta prozeduren jarraibide bateratuak sortzea eta jarraitzea lortu den edo ez.
- Partaidetza-prozesuetan inbertitutako aurrekontua ebaluatzeko metodologia bat sortu den edo ez.

Noiz?

2024-2027 aldian zehar.

4. Partaidetza-jarduerei buruzko komunikazio argiagoa sustatzea

Zer lortu nahi dugu?

Komunikazio argia eta ulerterraza erabiltzea partaidetza-jarduera guztietan eta partaidetza-prozesuekin lotuta sortzen diren material eta dokumentu guztietan.

Zergatik egiten dugu?

Komunikazioa argia eta irisgarria izan behar delako herritarrek jardueretan parte hartzeko eta emaitzak ezagutzeko duten eskubidea gauzatu ahal izan dezaten.

Zer egingo dugu?

- Komunikazio argia erabiltzea partaidetza-dinamiketan, inkestetan, lan-tailerretan eta partaidetza-foroetan.
- Partaidetza-prozesuekin lotutako dokumentu guztiak hizkera argian idaztea.

Nork parte hartzen du?

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak.
- Foru-sail guztiek.

Nola ebaluatuko dugu?

- Partaidetza-prozesuetan parte-hartzen duten pertsonen komunikazioaren argitasunari buruzko balorazioa.

Noiz?

2024-2027 aldian zehar.



3. jarduera-ildo:

Lankidetza partaidetzan

- HELBURUA:

- Partaidetza sustatzea
- Bizkaian errealitatea izan dadin.

- JARDUERAK:

1. Bizkaiko toki-erakundeen partaidetza sustatzeko dirulaguntzak mantentzea

Zer lortu nahi dugu?

Bizkaiko eskualde guztietan herritarren partaidetza bultzatzea. Bereziki, baliabide ekonomiko, material eta giza baliabide gutxi dituztenetan.

Zergatik egiten dugu?

Herritarrek herrietan parte hartzea beharrezkoa dela egiaztatu delako herri bakoitza garatzeko eta herritarren eta lurralde horretako erakundeen arteko lankidetzarako.

Zer egingo dugu?

- Bizkaiko toki-erakundeetan partaidetza sustatzeko dirulaguntzen urteko deialdi bat mantentzea.
- Dirulaguntza horien bitartez sortzen diren ekimenen emaitzak ebaluatzea behar diren egokitzapenak egiteko.

Nork parte hartzen du?

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak.
- Toki-administrazioko Zuzendaritza Nagusiak.
- Bizkaiko toki-erakundeek.

Nola ebaluatuko dugu?

- Dirulaguntzei bideratutako aurrekontu kopurua eurotan.
- Toki-erakunde onuradunen kopurua.
- Laguntzen diren proiektuen kopurua.

Noiz?

Urteko deialdietan, 2024-2027 aldian zehar.

2. Bizkaiko toki-erakundeen artean partaidetzari buruzko lankidetzaren eta ikaskuntzaren bultzatzea

Zer lortu nahi dugu?

Bizkaiko toki-erakundeen artean lankidetzaren eta ikaskuntzaren bultzatzeko mekanismoak sortzea.

Zergatik egiten dugu?

Oinarritzeko delako erakundeek dirulaguntzak baino laguntza gehiago eskaintzea.

Zer egingo dugu?

- Udalerri txikien errealitatean ezar daitezkeen partaidetzaren bultzatzeko estrategiak sortzea.
- Prestakuntza eta ezagutza trukatzeko jarduerak antolatzea.
- BiscayTICen bidez erakundeen arteko baterako irtenbide teknologikoak garatzea.

Nork parte hartzen du?

- Gobernamentu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak.
- Udal Harremanen Zuzendaritzak.
- BiscayTICek.
- Bizkaiko toki-erakundeek.

Nola ebaluatuko dugu?

- Gauzatutako lankidetzaren eta ikaskuntzaren partekatutako jardueren kopurua.
- Parte hartu duten toki-erakundearen kopurua.

Noiz?

2024-2027 aldian zehar.

3. OGP Euskadi proiektuan eta partaidetzaren bultzatzen duten beste ekimen batzuetan parte hartzen jarraitzea

Zer lortu nahi dugu?

Gobernu irekiagoak, parte-hartzaileagoak eta herritarren premiekiko sentiberagoak izateko mekanismoak sortzen dituen OGP Euskadi proiektuaren parte izaten jarraitzea.

Zergatik egiten dugu?

Euskadi 2018an hautatu zutelako proiektu honetan parte hartzeko. Harrezkero, 2 ekintza-plan sortu direlako gure erkidegoan, herritarrentzat oso onuragarriak diren konpromiso zehatzekin.

Zer egingo dugu?

- Euskadiko OGPn aktiboki parte hartzen jarraitzea.
- Partaidetzarekin eta gobernu irekiarekin lotutako beste sare batzuetan aktiboki parte-hartzea.

Nork parte hartzen du?

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak.

Nola ebaluatuko dugu?

- Parte hartzen den OGP Euskadiko konpromisoen kopurua.

Noiz?

2024-2027 aldian zehar.



4. Jarduera-ildoak:

Gizarte-ekintza eta boluntarioria gehiago

- HELBURUA:

- Gizarte partaidetza eta boluntarioria sustatzea, Bizkaiko garapen jasangarrirako oinarritzko tresna bezala.

- JARDUERAK:

1. "BizkaiaGara" ekimena gauzatzea

Zer lortu nahi dugu?

Herritarren partaidetzarako BizkaiaGara gunea garatzen jarraitzea, boluntarioria eta lan komunitarioa sortzeko pertsonak, erakundeak eta instituzioak biltzen dituenak.

Zergatik egiten dugu?

Bizkaiko Foru Aldundian uste dugulako beharrezkoa dela horrelako ekimenen aldeko apustua egiten jarraitzea eta herritarrei ematen dieten balio positiboak nabarmentzea.

Zer egingo dugu

- BizkaiaGarari atxikitako erakundeak eta pertsonen sarea zabaltzea.
- Pertsonak lotuko dituen eta aukera berriak sortuko dituen proiektuen gauzatze-eredua abian jartzea.

Nork parte hartzen du?

- Gobernamentu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak.
- Bilbako Bizkaia Kutxak (BBK).
- EDE Fundazioak.
- BizkaiaGaran parte hartzen duten eragileak eta herritarrek.

Nola ebaluatuko dugu?

- Boluntarioen kopurua.
- Parte hartzen duten erakundeak eta pertsonen kopurua.

Noiz?

2024-2027 aldian zehar.

2. Bizkaiko enpresek boluntariotzarekin duten konpromisoa handitzea

Zer lortu nahi dugu?

Boluntariotzako proiektu gehiago sortzea
Bizkaiko enprekin lankidetzan.

Zergatik egiten dugu?

Bizkaiko enpresak gero eta konprometituagoak daudelako
komunitatearen garapenarekin
eta gizarte- eta ingurumen-garapeneko
proiektuetan parte hartzearekin.

Zer egingo dugu?

- Komunikazio-ekintzak sortzea, enpresa gehiagok BizkaiaGara zer den jakin dezaten.
- Enpresa gehiagok eta horietan lan egiten duten pertsonak BizkaiaGarak gauzatzen dituen boluntariotza-ekintzetan parte har dezaten lortzea.

Nork parte hartzen du?

- Gobernamentu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak.
- Ekintzaitza, Talentu eta Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendaritzak.
- Bilbao Bizkaia Kutxak (BBK).
- EDE Fundazioak.

Nola ebaluatuko dugu?

- BizkaiaGaran parte hartzen duten pertsonen kopurua.

Noiz?

2024-2027 aldian zehar.

3. Boluntariotza sustatzea ingurumenaren eta kulturaren eremuetan

Zer lortu nahi dugu?

Ingurumenaren eta kulturaren eremuetan boluntariotzako jarduera gehiago sustatzea.

Zergatik egiten dugu?

Klima-aldaketaren aurka borrokatzea guztiok parte hartu behar dugun lana delako eta kultura-jardueretan parte hartzea garapen pertsonala eta komunitarioa dakarrelako eta gizarte eraldatzen laguntzen duelako.

Zer egingo dugu?

- Boluntariotzaren bitartez garapena lor daitekeen kulturarekin eta ingurumenarekin lotutako eremu berriak bilatzea.
- Boluntariotza jarduerak Bizkaia Gararekin lotzea, kulturarekin eta ingurumenarekin lotutako gaurko erronkei irtenbideak bilatzeko. Adibidez, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko eta kultura gizarte-onura gisa aitortzeko.

Nork parte hartzen du?


- Gobernamentu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak.
- Ingurumen Zuzendaritzak.
- Kultura Zuzendaritzak.
- Bilbao Bizkaia Kutxak (BBK).
- EDE Fundazioak.

Nola ebaluatuko dugu?

- Ingurumenaren arloan gauzatutako ekimenen kopurua.
- Kulturaren arloan gauzatutako ekimenen kopurua.

Noiz?

2024-2027 aldian zehar.



■ Jarraipena

Tresna eta prozesu multzo bat sortu dugu, Plana gauzatu eta planaren helburuen eta ekintzen jarraipena egin ahal izateko. Tresna eta prozesu horiei “Planaren gobernantza” deitzen diegu.

Jarraipena egiteko balio duten eta “Planaren gobernantza” osatzen duten tresnak hauek dira:

Barne-bultzada eta -koordinazioa

Plana Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzaren bidez bultzatzen da.

Zuzendaritza honek Foru-sailak koordinatzen ditu, herritarren eta gizartearen partaidetza bultzatzen beren eremuetan.

Foru-sailek lan hori egiten dutela egiaztatzeko jarraipena egiteaz ere arduratzen da.

Jardueren urteko memoriak

Urtero, memoria bat argitaratzen da. Bertan urte horretan egin diren Planaren jarduera nabarmenak azaltzen dira.

Ebaluazioa

Planak irauten duen urteetan 2 ebaluazio formal ere egingo dira. Tarteko ebaluazioa 2025eko abenduan eta amaierako ebaluazioa 2027ko abenduan.